2008-IV-18
Número **242.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Hamabigarrena martxan

**Batek baino gehiagok errepikatzen duen legez, denbora uste eta nahi baino azkarrago igarotzen da eta joan etorri horretan berriro ere, lau urtekoz behin egiten dugun bezala, kongresu konfederalaren ataritan gaude. Hamabigarrena izango da urte bukaera aldera dagokiguna, kongresu arteko organo gorenak, Nazio Kontseiluak deialdia egina baitu dagoeneko eta. Beraz, une honetatik aurrera kongresu konfederal batek eskatzen dituen behar besteko prestaketa eta antolaketa lanak abian jarri dira.**

**Oso xehea, guztiz xumea den hitzarekin, *Langileekin* alegia, laburbilduko da kongresu honetarako leloa. Ulerterraza bada ere, guretzat esanahi handikoa, modu borobilean biltzen baitu gure izena eta gure izana ere. Gertutasuna adierazteaz gain, norekin dugun konpromisoa bereziki zehazten du eta, bide batez, langile bakoitzari, langile klaseari mugi dadin dei egiten dio.**

**Garrantzizkoena kongresu aurreko lanetan dago: lau urtetarako ildo estrategikoak zehaztu, militante eta delegatu izango direnekin edukiak alderatu eta hausnarketa aberastu, aurreko epealdiko balantzea egitea ere beharrezkoa da… Hauxe da eginkizunik mamizkoena, eztabaida eta iritzi trukaketa horretatik baitatoz militante artean elkarrekiko loturak eta ikuspegi ideologiko eta praktikoak bateratzeko aukera paregabea. Beraz, kongresu egunetarako etxekolanak eginak behar.**

**Kongresu honek ere badu, ohizko edukiaz gain, bestelako esanahi berezia guretzat. ELAren ibilbide luzean, klandestinitatearen ondoren sindikatuaren zuzendaritza hartu zuen belaunaldiaren azken erakusle den egungo idazkari nagusiak bere ardurak utziko ditu. Berrikuntza orekatu eta mailakatua posible egin duten belaunaldi horretako lankide eta lagun guztiekin, oraingoak eta lehenagokoak, zorretan gaude. Eta zorrak kitatzeko modurik egokiena, esker ona adierazteaz gain, ELAren proiektua gorpuzten beraiek eginiko lana ardatz moduan hartzea eta sendotu eta zabaltzea da. Esku berrietan utzitako altxorrak ongi merezia du eginahalak eta bi egitea.**



### ELAko Nazio Kontseiluak kongresu konfederala deitu du; kongresua azaroaren 26 eta 27an izango da Bilboko Euskalduna Jauregian

# XII. KONGRESU KONFEDERALA ABIAN

**ELAko Nazio Kontseiluak XII. Kongresu konfederalerako deia egin zuen apirilaren 18an Bilbon egin zuen bileran. Estatutuek jasotzen duten legez, kongresu arteko organo konfederal gorenak deitu zuen kongresua; XII. Kongresu konferala azaroaren 26 eta 27an izango da, Bilboko Euskalduna jauregian. Leloa *Langileekin* izango da, sindikatuak langile-klasearekiko duen konpromisoa adierazi eta nabarmentze aldera.**




Kongresuan 736 ordezkari izango dira; hauetatik 350 federazio profesionalen ordezkari izango dira, beste hainbeste eskualde-batzetakoak eta 36 sindikatuko Nazio Batzordekoak. Lau federazio profesionaletatik handiena metala da, eta 94 ordezkari izendatuko ditu; Hainbatek, txikienak, 81. Hamabi eskualde-batzen aldetik, berriz, handienak, Bilbok, 37 arduradun igorriko ditu, eta Urola-Kostak, txikienak, 22. Bestalde, Nazio Kontseiluak kongresuan jorratu beharreko gaiak erabaki ditu: Batzorde Eragilearen txostena, kongresu-egitasmoa eta Batzorde Eragilearen hautaketa.

Jakina da XII Kongresuan egungo idazkari nagusi den Jose Elorrietaren erreleboa emango dela, honek ardura utziko baitu sindikatuko araudiak horrela jasotzen du eta. Jose Elorrietak kargua uztearekin batera, 1976an sindikatuaren ardura bere gain hartu zuen belaunaldiak arduradun talde berri baten eskuetan utzi du ELAren gidaritza.

*ELA celebrará su XII Congreso Confederal los días 26 y 27 de noviembre en Bilbao*

### ELA celebrará el 1º de Mayo en Bilbao a partir de las 11:30, bajo el lema 'Euskal Herri soziala indartzeko, langileak martxan'

# EL PRIMERO DE MAYO TENEMOS UNA CITA

**ELA celebrará el 1º de Mayo en Bilbao, un año más. Este día de fiesta y reivindicación comenzará para los militantes de ELA en torno a las 11:30 horas de la mañana, a la altura del Sagrado Corazón, con un mitin en el que el secretario general, Jose Elorrieta, hará un diagnóstico de la situación actual desde el punto de vista social, económico, laboral y político.**

Aproximadamente una hora más tarde, sobre las 12:30, dará inicio una manifestación que se espera multitudinaria bajo el lema *Euskal herri soziala indartzeko langileak martxan.* La manifestación recorrerá las principales calles de Bilbao, e irá distribuida por comarcales. Las comarcales llevarán a la calle distintas reivindicaciones, muchas de ellas ligadas con la campaña por otro modelo de sociedad que el sindicato ha protagonizado a lo largo de estos últimos meses. Tampoco faltarán en la cita de Bilbao empresas y sectores en conflicto.

A partir de las 14:00, y tras la reivindicación propiamente dicha, dará comienzo la fiesta, que se trasladará al BEC, donde tendrá lugar la ya tradicional comida de hermandad, el baile, así como el parque infantil: los juegos y diversiones para los más txikis de la familia.

Las *txartelas* para el autobús –los que se desplazan de fuera de Bilbao– y la comida están ya a la venta en los locales comarcales. La de adultos al precio de 16 euros, y la de niños a 8 euros. ¡No faltes a este día de reivindicación y fiesta de la clase trabajadora en todo el mundo!



## El Consejo Nacional de ELA analizó temas de relevancia para el sindicato

# TRES MESES DE 'LANERA'




**El Consejo Nacional de ELA, máximo órgano confederal entre congresos, se reunió el 18 de abril en Bilbao y, tal como recogen los estatutos, convocó el duodécimo congreso confederal, que tendrá lugar en el Palacio Euskalduna los días 26 y 27 de noviembre. El lema elegido es *Langileekin*, con el propósito de identificar y subrayar el compromiso del sindicato con la clase trabajadora.**

El número de personas delegadas al Congreso será de 736; 350 en representación de las federaciones profesionales, otras tantas de las uniones comarcales, y los 36 miembros del Comité Nacional. De las cuatro federaciones profesionales, la Federación del Metal, la mayor, designa 94 personas delegadas, y Hainbat, la menor, 81. En cuanto a las doce Uniones Comarcales, la representación va desde las 37 de Bilbao a las 22 de Urola-Kosta.

En este congreso se procederá al relevo del actual secretario general, Jose Elorrieta, en cumplimiento del reglamento interno del sindicato. Se culmina, así, un proceso de renovación cuyo resultado ha sido la progresiva salida de la dirección de aquella generación que asumió la responsabilidad en el Congreso de 1976, y cuyo último exponente es Jose Elorrieta.

La convocatoria del XII Congreso de ELA fue el plato fuerte de la reunión del Consejo Nacional, pero no el único. Otros temas importantes fueron el desarrollo del Plan de Organización *Lanera* y, en concreto, la puesta en marcha de una campaña de afiliación, que se desarrollará de mayo a junio, las elecciones sindicales, que se siguen realizando debido al cómputo permanente, y el estado y horizonte estratégico de la negociación colectiva.

### ■ Eustakio Uranga: "TENEMOS QUE CAMBIAR INERCIAS"

Por lo que se refiere al apartado de Organización, su responsable, Eustakio Uranga, comenzó su intervención recordando los objetivos de la puesta en marcha, hace tres meses, del plan de organización *Lanera*. "Pretendemos mejorar la sindicalización de nuestras empresas con un trabajo más localizado (incidiendo de modo preferente en unas empresas); planificado (ajustado a unos fines); sistemático (con un método conocido y compartido); y regular (con una agenda más ordenada y controlada)", dijo.

Aunque han pasado sólo tres meses desde la puesta en marcha del plan, Uranga afirmó que en este tiempo se han visto aspectos positivos y potencialidades importantes, "pero también formas de funcionamiento extendidas que suponen un riesgo para la efectividad del plan", advirtió.

Dentro de los aspectos positivos, destacó que se está respetando de forma bastante extendida el calendario de reuniones con los delegados/as seleccionados, los martes y los miércoles. Sobre las primeras reuniones trimestrales, Uranga afirmó que los niveles de participación y el grado de sintonía con la reflexión de la organización ha sido buena.

Dentro de los aspectos a mejorar, el responsable de organización recalcó que "debemos aprovechar mejor las reuniones con los delegados y delegadas. De la calidad de esas reuniones depende la motivación, asunción de responsabilidades y liderazgo en las empresas de nuestros delegados/as. Uranga recalcó que "nuestro trabajo se tiene que traducir en militancia en las empresas cada vez más comprometidas, para avanzar, a su vez, en el grado de sindicalización, afiliación y en dinamizar la negociación colectiva".

El responsable de organización de ELA también se refirió al 1 de Mayo, marcando como objetivo superar la cifra de asistencia de 2007. "Este 1º de Mayo es un test y una oportunidad para poner en práctica el Plan de Organización", dijo.

Uranga concluyó su intervención lanzando un mensaje de ánimo no carente de autocrítica a los presentes. "Estamos en un proceso difícil. Cambiar inercias de trabajo estructurales y avanzar cualitativamente en resultados cuesta. Pero va a ser posible, porque aunque tengamos que aprender algunas cosas y cambiar hábitos, de convicciones y motivación andamos muy bien", aseguró.

*Antolakuntza plana ezinbestekoa da etorkizuneko erronkei aurre egiteko*

### ■ Txema Laiseka: "NO PODEMOS DORMIRNOS EN LOS LAURELES"

Txema Laiseka hizo un repaso de los resultados de las elecciones sindicales, advirtiendo que hay que mantener la tensión organizativa también en este campo. "No podemos dormirnos en los laureles. Sabemos que mantener nuestro 40% es muy difícil, pero tenemos que seguir haciéndolo. Para ello, en cada ámbito, los responsables deben analizar la evolución de las elecciones, detectar las oportunidades y concretar muy bien el campo de trabajo".

"Concretamente –añadió– para este periodo inmediato tenemos que centrar nuestro trabajo en cuatro ámbitos: 1.-Empresas PYMES cuyo periodo de mandato ha vencido y no hemos renovado a la fecha; 2.-Nuevas empresas PYMES; 3.-Empresas de comité donde tenemos poca o ninguna representación. 4.-Empresas de comité de Zerbitzuak nuevas, por ser la federación donde más campo tenemos".

Laiseka remarcó, también, que la puesta en marcha de plan de organización tienen que empezar a notarse también en este capítulo.

### ■ Joseba Villarreal: "HAY QUE DAR UN SALTO ADELANTE"

Joseba Villarreal comenzó su intervención destacando que la negociación colectiva es el único instrumento que tenemos los trabajadores/as para mejorar nuestras condiciones laborales y transformar la sociedad en la que vivimos, al tiempo que destacó que el único límite que tenemos es la capacidad de organizar a la gente.

Respecto a los contenidos, el responsable de negociación colectiva de ELA resaltó que hay que conectar con las necesidades y reivindicaciones de la gente, porque esa es la manera de implicarla en la acción sindical. "La gente es nuestro principal activo, por eso –afirmó Villarreal– tenemos que responder a sus necesidades".

A continuación, Villarreal abandonó el plano teórico y aseguró que "en la práctica tenemos que mejorar mucho nuestro trabajo. Tenemos que ser más ambiciosos, trabajar mejor, preparar mejor, ser exigentes con nosotros mismos; en definitiva, tenemos que pasar de las palabras a los hechos", dijo con rotundidad.

En ese sentido, el responsable de negociación colectiva recordó que el objetivo de la puesta en marcha del plan de organización *Lanera* es trabajar mejor, y se mostró crítico con algunos responsables "que no se han marcado ni siquiera una de las 30 empresas que tienen para poner en marcha Lanera", y con algunos de los criterios seguidos a la hora de elegir empresas. Villarreal resaltó que "el criterio de elección de empresas para dar saltos cualitativos y cuantitativos en materia de negociación colectiva debe ser dinámico y flexible, y el responsable sindical debe implicarse al 100%", dijo.

Por lo que se refiere al plan de actuación en las empresas elegidas, Villarreal recordó que "debe ser un trabajo sistemático, marcándonos objetivos cuantitativos y cualitativos medibles. Debemos intentar cosas nuevas. No elegimos una empresas para hacer lo que siempre hemos hecho sino para dar un salto adelante". "No hay sitio para la improvisación", rubricó.

### El objetivo es lograr mejoras reales para el conjunto de trabajadores/as

# ELA Y LAB EXIGEN UN NUEVO ACUERDO PARA LA RED CONCERTADA

**Los sindicatos ELA y LAB, que cuentan con una amplia mayoría en las Ikastolas y centros de iniciativa social, han exigido al Gobierno Vasco un nuevo acuerdo de financiación para la red concertada que posibilite mejoras reales para el conjunto de los trabajadores y trabajadoras. En opinión de ELA, únicamente en este escenario se pueden abordar cuestiones tan relevantes para el sector como la reducción de la jornada lectiva y el tema salarial.**

Según ELA y LAB, los elementos centrales para un nuevo acuerdo están recogidos en el acuerdo de dedicación suscrito el año 2005 por los dos sindicatos y las patronales del sector de las Ikastolas (PARTAIDE y EIB).

El *acuerdo de dedicación* subraya dos aspectos que obligatoriamente debe recoger un nuevo acuerdo de financiación. Por una parte la equiparación retributiva respecto al personal de los centros de titularidad del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, tanto para el personal docente como para el personal de administración y servicios. Y, por otra, la que hace referencia a la reducción de la jornada lectiva. Además debería señalar las funciones y actividades comprendidas actualmente en el módulo, donde han de incluirse las de tutoría, orientación, refuerzos lingüísticos…

Hasta el momento el Departamento de Tontxu Campos no ha tenido ningún tipo de contacto con los sindicatos mayoritarios para negociar un posible acuerdo, por lo que ELA y LAB creen que ha llegado el momento de movilizarse. Las protestas culminarán con un paro el día 20 de mayo en todos los centros de la red concertada y una manifestación en Bilbao. Estas son las movilizaciones programadas:



- **Jornadas Informativas / Concentración delegados/as**
  - Gasteiz, Plaza del Arca. 24 de abril a las 12:00 horas
  - Donostia, Boulevard. 8 de mayo a las 12:00 horas
  - Bilbao, Plaza Circular. 15 de mayo a las 12:00 horas
- **Paros en los centros, la tarde del 20 de mayo**
- **Unido a este paro manifestación de los trabajadores y las trabajadoras de la Red Concertada en Bilbo a las 18:00 horas**

## ELA: "ESKOLA PUBLIKOAREN IZAERA INDARTU BEHARRA DAGO"

Iragan astean itunpeko ikastetxeen hainbat elkarteren ordezkariek eskola publikoarentzako finantzaketa eredu berri bat eskatu zuten. ELAk uste du halako neurri batek itunpeko irakaskuntzako langileen lan-baldintzak eta lanaldia hobetu eta homologatzeko balio beharko lukeela. ELAk dei egiten dio Administrazioari, prozesua egitekotan, gardentasun handienaz egin dezan, informazio guztia denon eskura ipiniz.

Ikastetxeen finantzaketaren eztabaidak irekitzen duen aukera baliatu nahi du ELAk argi adierazteko eskola publikoaren izaera lehentasunezko eta berezia dela, eta, hortaz, eskola publikoa indartzea aldezten du. ELAren iritziz, eskola publikoaren aldeko konpromisoa ezinbestekoa da pertsona guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzen duen jendarte-eredu batean. Gainera gizarte-dumpinga saihesteko bide bakarra da, bai langileen lan-baldintzei dagokienez, bai hezkuntza-sistemaren izaera unibertsal, doako, berdintzaile eta integratzaileari dagokienez.

# EZ DUTE SINDIKATUA ISILTZERIK LORTUKO

**Hau da Maiatzaren Lehena dela eta ELAk prestatu duen testua:**

Maiatzaren Lehena langile jendearen eguna da, gure lanaren ahaleginarekin bizi garenon eguna. Erreibindikazio eguna ere bada, hain zuzen, patronalek eta gobernuek tratatzen gaituzten moduarekin gure desadostasuna adierazteko eguna eta , bide batez, aberastasunaren bidegabeko banaketa salatzeko eguna.

Langileok jasaten ditugu soldata urriak, kontratu prekarioak eta legeiruzurrean eginak, diskriminazioak –batez ere gazteek, emakumeek eta etorkinek–, azpikontratazioa eta lan istripuak. ELAk bidegabekeri hauen aurka borroka egiteko borondatea berresten du, lan duina eta eskubidearekin konprometituaz. Baina, aurtengo Maiatzaren Lehenean bereziki gizarte-eredu zuzenago bat exijitu nahi dugu. Izan ere, enpresaburuen zergak gero eta murriztuago daude, iruzur fiskalarekiko tolerantzia zabala, zerbitzu publikoak pribatizatzeko prozesua, hezkuntza eta etxebizitzaren eskaintza txikiegia, menpekotasun-egoerei laguntzeko arreta eskasa, eta horrekin batera, aurrekontuak superabitaz ixten dituzte.

Guzti horrek aginte politikoak eginiko aukera erakusten du: jendearen beharrizanak alde batera utzi eta negozio pribatuari ateak ireki. Gobernu eta patronalek ez dute kritikarik jasaten. Bere politikak zilegi jotzea dute helburu baina ELArekin ez dira bat etorriko. Haatik, joko-arauak hautsi eta gutxiengo sindikala balioztatzen dute; haatik, greba eskubidea murriztu eta aldarrikapena kriminalizatzen dute. Jende xeheak behar dituen eskubideak urratu eta hauek lortzeko dituen tresnak gutxiesten ditu. Hori da, ordea, sindikatuaren izatea: defentsarako elkartasunezko tresna.

Bere politikak txalotu ezean, aginte politiko eta patronaletik at burujabe diren erakundeak zigortzea erabaki dute. Azken erasoa Lehiarako Euskal Zerbitzuak burutu du. Euskal Gobernuak sorturiko organo honek sindikatuko edonolako barne informazioa eman beharra agindu du merkataritzako langileek jai egunetan jai izan ditzaten egindako kanpainarekin lotuaz. Guzti hori neurriz kanpoko isunen mehatxupean. Inkisizio garaiko jarrera dirudi.

Helburu argia dute: askatasun sindikala murriztu, sindikatua beldurtu, bere funtzioa bete ez dezan. Honelako ekimenak gobernuan dauden agintarien profil politikoaren isla nabaria dira. Isunak eta zigorrak tarteko, sindikatuaren eginbeharrekoari uko egitea dute helburu. Sindikatua ez da ordea isildua izango, besteak beste, beraiena ez baita eta. Sindikatua behar eta defendatzen dutenen milaka langile eta lankideena bakarrik da.

GORA LANGILEEN ELKARTASUNA!

GORA EUSKAL HERRI LANGILEA!

GORA MAIATZAREN LEHENA!



## Felix Obietak, Peli, Maiatzaren Lehenean Bilbora joateko deia luzatzen die ELAko militante guztiei

# "EZ ZAIT GUSTATZEN MUNDUAK DARAMAN NORABIDEA; HORI ALDATZEN SAIATU BEHAR GARA"

**Felix Obieta, Peli, ELAko militante historikoa da. Urte luzez Bilboko Euskalduna ontzioletako langilea izan zen, eta bertan egin zuen bere jarduera sindikala. Pelik makina bat aldiz hartu du parte Maiatzaren Lehenean. Egun erretiroa hartuta dago, baina urtero legez aurten ere Bilbon izango da maiatzaren lehen egunean.**

**-Maiatzaren Lehena egun berezia da langile guztiontzat. Zuk hamaika aldiz hartu duzu parte. Nola oroitzen dituzu lehen aldi horiek?**

-Ez naiz gogoratzen zein izan zen nire lehenengo Maiatzaren Lehena, urte batzuk pasatu dira, bai… Duela bi urte ezin izan nuen Bilbora joan, baina bestela urtero-urtero izan naiz, hutsik egin gabe. Lehenengo garai horietan manifestazio bat egiten zen; gero bazkaria ere egiten hasi ginen, aldarrikapenari festa giroa batuz. Lehen soilik aldarrikapen kutsua zuen; orain, kutsu hori galdu ez duen arren, festak ere badu bere tartea. Bestalde, lehen Maiatzaren Lehena leku ezberdin batean egiten zen, askotan aldatzen genuen. Orain, beti Bilbon egiten da .

**-Bazkariaren aurretik Agur Jaunak txistuarekin jotzen duen laguna ere bazara…**

-Bai, aspalditik jotzen dut txistua, eta gustuko dudala aitortzen dut. Giroa alaitzen du, jendea alaitzeko modu bat da. Jaietan ere askotan jo izan dut, eta polita da oso. Zer izango zen bizitza, jaia, soinurik gabe? Jaio aurretik ere soinuez elikatzen gara. Gorputza gauza askotaz elikatzen da, ez soilik janariaz. Eta horietako bat soinua da. Soinua gure bizitzen atal garrantzitsu bat da.

**-Aurten ere badaukagu zer aldarrikatu…**

-Ez zait gustatzen gure egungo gizarteak daraman martxa, ez behintzat mendebaldea deitzen duten honek daramana. Horrela jarraitzen badugu ez dugu etorkizun onik izango. Gure ingurura begiratu eta mundua nola dagoen ikusi besterik ez dago.

Eta, sakoneko aldaketa bat behar dugu mundua aldatu eta gauzak hobetzeko, gauzak errotik aldatu behar dira. Gizartea errotik aldatu behar dugu, eta horretarako ezinbestekoa da bizi dugun gizarte patriarkalarekin amaitzea. Mundu patriarkala Europan duela 5.000-7.000 urte sortu zen, eta sistema horrek gizakia ezeztatzen du. Hortik dator gure zibilizazioetako akatsa. Horretarako lehen sexualitatea deitzen dutena aldatu beharra dago.

Sindikatuko lagunak eta kideak pertsona utopikoak izan beharko genuke, utopikoak aldarrikatzeko mundu hau aldatu beharra dagoela. Ez dut uste mundua norabide zuzenean doanik, eta hori aldatzen saiatu behar dugu.

*"Es evidente que el mundo no va en buena dirección; por eso es necesario luchar para cambiarlo"*

## Labur Breves

### ● Condena del último atentado de ETA

ELA condenó el atentado de ETA contra la sede del PSE-EE en el barrio La Peña de Bilbao. En primer lugar ELA mostró su solidaridad con los ertzainas heridos en el atentado y su solidaridad con los vecinos afectados y el PSE-EE. ELA volvió a reiterar su exigencia a ETA para que abandone las vías de la coacción y violencia. Este tipo de actos sólo crean sufrimiento y crispación, al mismo tiempo que subraya la necesidad de acabar con la lucha armada. Es imprescindible buscar soluciones al conflicto político que vive este pueblo, exclusivamente por vías civiles y democráticas.

### ● Robles-Arangiz Fundazioak egitarau oparoa prestatu du, Martxoaren Lehena dela eta

Maiatzaren Lehena dela eta, Manu Robles-Arangiz Fundazioak hainbat ekitaldi antolatu ditu maiatzaren 2tik 4ra bitartean. Maiatzaren 2an, osteguna, 68ko Maiatzeko afixen inguruko erakusketa izango da, Sankara ostatuan (22, Chao kaian, Baiona Ttipia). Arratsaldeko 19:30tan, berriz, Baionako L'Atalante zineman *Nous sommes tous des enfants de mai 68* (Guztiok gara 68ko maiatzeko haurrak) gaualdia izango da: filmak, zintzur bustitzea, musika, eztabaida, erakusketa partehartzailea... Bi izango dira emango diren filmak: 20:45etan, *La reprise* laburmetraia eta *Mourir à 30 ans* filmea ondoren. Filmen ostean 68ko maiatzari buruz debatea egongo da Gerard Filoche-kin.

Maiatzaren 3an formakuntza sesioa izango da. Bertan gaur egun Frantzian denen ahotan dauden gai sozialen inguruko eztabaida izango da, eta bertan Gerard Filoche-k ere hartuko du parte: 35 orduak, erretretak, laneko kodearen erreforma, lan-kontratu berriak… Sesioa Robles-Arangiz Fundazioak Baionan duen egoitzan izango da, 20 rue des Cordeliers kalean.

### ● El pacto de empresa en Herca supera el bloqueo del metal de Bizkaia

Tras 15 días de huelga ELA ha alcanzado un acuerdo con la dirección de la empresa Servicios de Mantenimiento Herca, subcontrata encargada del mantenimiento y limpieza de la refinería de Petronor. El acuerdo, que tendrá cuatro años de vigencia, recoge para el periodo 2007-2010 una subida salarial del IPC real más un 1%, así como 1.620 euros en concepto de complemento de paga extra a repartir durante la vigencia del pacto. Por otro lado, en el caso de bajas por accidente de trabajo o enfermedad profesional se complementará hasta el 100% de la base reguladora. ELA valora positivamente este acuerdo, ya que ante el bloqueo del convenio provincial del metal, se ha logrado llevar el convenio al ámbito de la empresa.

### ● Faustino Orbegozoko langileek greban jarraitzen dute

Faustino Orbegozo zahar-etxeko langileek elkarretaratze berri bat egin zuten apirilaren 17an Gipuzkoako Batzar Orokorretako egoitzaren aurrean. Aralar alderdiak Batzar Orokorretan Geriatrikoko langileen agerpena eskatu zuen egun horretan. Proposamena soilik Ezker Batuaren babesa izan zuen. Gainontzeko alderdi politikoek, (EAJ, PSE-EE, PP eta EA) aurka bozkatu zuten. Gatazka pertsona nagusiak zaintzeko zegoen udal zerbitzuaren pribatizazioarekin sortu da. Eraikuntza berria zein Geriatriko berriaren kudeaketa enpresa pribatu bati esleitu dio Foru Aldundiak. Egoera honen aurrean langileen etorkizuna zalantzan dago, administrazioak ez duelako eurekiko inolako konpromisorik hartu nahi.

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207